



kritiken hemeroteka

6.765 kritika

Honi buruz

Bilaketa

Hasiera

Azken kritikak

- **Maitasunaren indarra**
Gabriel Korta
Igor Estankona
- **Nola heldu naiz ni honaino**
Kattalin Miner
Hasier Rekondo
- **Herioren mandataria**
Joseba Lozano
Mikel Ayerbe
- **Kixotenean**
Iñigo Astiz
Javier Rojo
- **Azken zakatzak**
Martxel Mariskal
Gorka Bereziartua
- **Ispiluen arteko zirriborroak**
Amaia Iturbide
Alex Gurrutxaga
- **Politikaren atarian**
Rikardo Arregi
Aritz Galarraga
- **Nola heldu naiz ni honaino**
Kattalin Miner
Iratxe Esparza
- **Argiaren hautsa**
Luis Elizetxea
Hasier Rekondo
- **Ez lemaio**
Juan Kruz Igerabide
Javier Rojo

« [Poesia gaztea](#) | [Guztion isla](#) »

Waterloo-n galdutakoak / **Xabier Etxaniz Rojo** / Erein, 2016

Hizkuntzek ematen digutena → [Iratxe Esparza](#) / *Gara*, 2017-03-18

Bakarnek eta Mikelek elkarrekin bizi eta lan egiten dute. Euskal bikote polita osatzen dute, gainera; biak euskaltegiko irakasleak dira eta euskal kulturaren murgilduta dabilta. Baina, egun batetik bestera dena aldatzen da beren bizimoduan. Iktus bat pairatu ondoren, Bakarnek hizkuntza-gaitasuna galtzen du, garun paralsiak afasia eragiten diolako. Funtsean, hori da eleberriaren lehendabiziko zatian —guztira, berrogeita bi— dagoen istorioaren abiapuntua. Galdutako oroitzapenak gogoratzeko lagungarria izango delakoan, egunkari batean Mikelek Bakarneri paralsiaren prozesuaren bilakaera idazten dio, eta horri esker irakurleak bion arteko harremanaren eta Mikelen sentimenduen berri ere badu; bitartean, eleberriaren iraganeko eta orainaldiko gertakizunak tartekatuta daude. Bakarne galduta sentitzen da askotan, itota bere ingurukoak ulertzeko nahian, bere burmuina motel doa eta bizitzaren azkartasunak aztoratzen du, gorputzaren mugimenduak kontrolatzeko eta hizkuntzari zerotik ekiteko lasaitasuna behar duelako, eta geldotasun hori testuaren erritmoan ere iltzatzen da.

Hitza esanahirik gabe agertzen zaio Bakarneri, hutsik dago eta krisian. Liburuko hasierako pentsamendua hizkuntza eginkizun komunikatiboaren garrantzia azpimarratetik hizkuntzaren kutsu ideologikoa azpimarratzera doa. Bakarneri gertatutako iktusak istorioa gidatzen du; hala ere, afasia aitzakia, idazleak mahai gainean jartzen ditu hizkuntzari buruz inoiz desagertu ez diren larritasun diglosikoak eta kutsu erromantikoa erakusten duten hizkuntzaren inguruko zenbait gogoeta. Hizkuntzak egiten gaitu, haren arabera errealtatearen ikuspegi ezberdinak daude eta, nola ez, Mikel protagonistak etengabe gogoarazten digu hizkuntza herriaren arima dela. Tenka horretan, hain zuzen ere, mugitzen da Bakarne iktusaren ondorioz. Emakumezko protagonistaren identitatea ere krisian sartzen da, Bakarne izan baino lehen, Valentziatik Irunera gurasoekin heldu zen Soledad izeneko neska baitzen. Euskaltegian ikasten hasten da Mikel irakasle duela, eta euskarak eskaintzen dionaz ohartzen denean, euskaraz bizitzea (eta maitatzea) erabakitzen du. Alabaina, euskaldun peto-petoa izateko gaztelareri eta hizkuntza horrek besarkatzen duen guztiari uko egin behar die, kasurako aitari edota jaiotzetik hain

Artxiboa

- Apirila 2017
- Martxoa 2017
- Otsaila 2017
- Urtarrila 2017
- Abendua 2016
- Azaroa 2016
- Urria 2016
- Iraila 2016
- Abuztua 2016
- Uztaila 2016
- Ekaina 2016
- Maiatza 2016

Aurreko urteak ▼

Hedabideak

- Berria (863)
- Argia (858)
- El Diario Vasco (813)
- El Correo (737)
- Gara (555)
- Egunkaria (505)
- Deia (362)

→ **Idazlan guztiak**
Teresa Avilakoa
Jose Luis Padron

→ **Elur bustia**
Pello Lizarralde
Igor Elordui Etxebarria

→ **Parranda**
Eduardo Blanco Amor
Gorka Bereziartua

→ **Nola heldu naiz ni honaino**
Kattalin Miner
María Unanue



esanguratsua den markari, izenari, alegia. Beraz, Soledad Bakarne bihurtzen da eta horrekin batera gaztelerako unibertsoari bizkarra ematen dio.

Afasiarena erronka bihurtzen da Mikelentzat, berriro ere Bakarne hizkuntza ikasteko egoeraren aurrean gazteleraren eta euskararen artean aukeratu beharrean dagoelako. Bakarneren ama, Valentziatik etorritakoa, gazteleraren alde lerrokatzen da eta erdaldunen mundua irudikatzen du; Mikel, ordea, euskararen defendatzaile amorratua da eta euskal giroaren ordezkaria. Hizkuntza eta pertenezaren ideia uztartzen dira liburuan, antza, ezinbestekoa dena norbanakoak behar dituen egonkortasuna eta argitasuna lortzeko. Nire gusturako, mintzairaren eta identitate kulturalaren arteko harremana esplizituegi azaltzen da, eta narratzailearen hirugarren pertsonaren ahotsa gertutasuna eta enpatia lortzen saiatzen den bigarren pertsonarekin tartekatzen bada ere, bizitasuna falta zaio testuari, antzekoak diren ideiak errepikatzen direlako eta erritmoa sinplifikatzen delako. Agian horregatik, irakurle honek ere irakurketaren hainbat momentutan Bakarnerekin topo egin du Waterloo-ren eremuan.

→ El País (151)

→ Aizu! (146)

→ Irunero (122)

→ Zeruko Argia (97)

→ Egin (77)

→ Hegats (62)

→ Besterik (1416)